



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 30a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00399. Galdera, SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023an sinatutako akordioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00400. Galdera, toki-entitateentzako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00401. Galdera, bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00402. Galdera, Kanarietatik heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzak jaso beharreko finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00403. Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak itxita eduki tzeko aurreikusten den egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00404. Galdera, Valle de Odieta SCL sozietateak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00405. Galdera, Solaria enpresak sustatutako Serena 1 eta 3 proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00406. Galdera, Belosoko BHZ, Ilundain/Etxegaraiko BHZ eta Martzillako BHZ okupatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00407. Galdera, Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn kontratatutako langileen bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00408. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00409. Galdera, 2023an eta 2024an enpresa-proiektuak foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko eskaerak ebazteko batezbesteko epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00410. Galdera, 2023an eta 2024an foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaraturako enpresa-proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- 11-24/PES-00411. Galdera, 2023ko zenbait ekitaldiren babesletzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00412. Galdera, Nafarroako Gobernuak elDiario.es-en publizitatea jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00413. Galdera, Anatomia Patologikoko teknikariek Tuterako Reina Sofia ospitaleko laborategian egiten duten lanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00414. Galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integralari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-24/PES-00415. Galdera, etxerik gabeko familien arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-24/PES-00416. Galdera, komunikazio enpresa batek antolatutako ekitaldi/ekintza bat babesteko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-24/PES-00417. Galdera, JPI Consultores SL kontsultorak Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren adituen lehenbiziko bileran parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00418. Galdera, txostenak bat ez etortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-24/PES-00419. Galdera, ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkarterako aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 11-24/PES-00420. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneko gardentasunaren atalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00399. Galdera, SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023an sinatutako akordioari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreakk SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023an sinatutako akordioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: SATSE sindikatuak eta Osasun Departamentuak 2023ko apirillean sinatutako akordioaren puntu batzuk nola betetzen dira gaur egun? (11-23/PEI-00399). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilari Fernando Dominguez Cunchillos jaunaren erantzuna:

SATSEk eta Osasun Departamentuak 2023ko apirilaren 17an sinatutako akordioaren puntuen zerrenda eta haiek betetzeko ekintzen azalpena:

1. Oinarrizko Osasun Laguntzako agenda

SATSEekin egindako akordioei dagokienez, erizaintzako agendan sar daitezkeen kontsulta arazoak berrikusi dira, eta honako hauek dira: sukarra; arnas sintomak: mukiak, eztula, hotzeria, eztarriko mina, gripearen sintomak eta/edo covidarekin bateragarriak diren sintomak; digestio sintomak: beherakoak, gorakoak, goragaleak; txiza egitean mina (emakumeak); ahoko mina edo ondoeza; belarriko ondoeza edo itxi diren sentazioa; betiere hiru egun edo gutxiagokoak badira. Osasun-etxeetako profesionalak egokitzen jotzen

badute, erizainarekin hitzordua izaten ahalko dute 5 egun arteko eboluzio sintomak dituzten pertsonak.

2019tik aurrera, GAPen jarraibide batek zehazten du 15 urtetik gorako pertsona guztiei hitzordua emanen zaiela erizainarekin, sintomak zehaztuta, eta, beraz, kendu egiten da 70 urtetik gorakoei medikuarekin hitzordua emateko irizpidea.

Hala ere, oinarrizko eremuan estrategia ezartzeko hasierako fasean hala erabakitzen duten zentroek eutsi egin diezaioke medikuarekin hitzordua emateko irizpideari, 70 urtetik gorakoentzat.

Erizaintzako agenda guztietan, baita erizaintzako oinarrizko unitate asistentzialen, akutuenen eta kronikoen agendan ere, noranzko biko hitzorduen aukera bermatzen da. Neurri horrek koordinazioa hobetzen du eta hitzorduen kudeaketa errazten du, bai profesionalentzat, bai pazienteentzat.

2. Plantilla eta absentzien ordezkapena

Oinarrizko Osasun Laguntzako erizainen bajak % 100ean eta lehen egunetik betetzen dira.

Oinarrizko Osasun Laguntzako talde bakoitzak bere langileen absentziak ordezteko eskatzen du, eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Profesionalen Zerbitzutik denak artatzen dira.

3. Konpentsazioa, Osasunbideko lanalditik kanpo egindako aparteko jarduerarengatik

2023. eta 2024. urteetarako datuak lotzen ditugu.

2024ko datuek urrira arteko datuak jasotzen dituzte; beraz, Oinarrizko Osasun Laguntzaren helburuak ez daude sartuta, ezta azaro-abenduko kontzeptu guztiak ere. Pertsona kopuruari dagokionez, 2023an 1428 lagunek kobratu zuten produktibitatea. 2024ko hasieratik hona, 212 izan dira, eta Oinarrizko Osasun Laguntzaren helburuak kobratetik ateratzen denarekin handituko dira.

Zenbatekoen batura Ilarako etiketak	Zutabeko etiketak		
	2023	2024	Guztizko orokorra
*ENTZIERROETARA BERTARATUTAKOAK	3.200,00	3.700,00	6.900,00
*APARTEKO PRODUKTIBITATE OSAGARRIA	5.716,80		5.716,80
*PRODUKTIBITATE OSAGARRIA	124.820,60	273.337,57	398.158,17
*KANPOKO PRODUKTIBITATE OSAGARRIA	12.236,05	5.026,68	17.262,73
*PRODUKTIBITATE OSAGARRIA. LEHEN MAILAKO HELBURUAK	253.439,25	5.576,09	259.015,34
*ORGANOEN ERAUZKETA	35.257,07	165.332,90	200.589,97
*PRODUKTIBITATE BATERAGARRIA. ARRETA ESPEZIFIKOA	18.727,85	145.486,68	164.214,53
*PRODUKTIBITATE BATERAGARRIA. OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZA	3.800,29	16.094,55	19.894,84
*PRODUKTIBITATE BATERAGARRIA. JAIEGUNAK	8.711,94	32.722,14	41.434,08
*PRODUKTIBITATE BATERAGARRIA. GAUAK	4.380,45	17.265,65	21.646,10
*PRODUKTIBITATE ARRUNT BATERAGARRIA	12.833,98	36.500,95	49.334,93
MIAKETEN PRODUKTIBITATEA	25.413,17	60.289,33	85.702,50
LANALDI KIRURGIKOAK LUZATZEAREN ONDORIOZKO PRODUKTIBITATEA	16.146,12	46.864,84	63.010,96
*KIRURGIAKO PRODUKTIBITATEA	8.635,28	20.110,42	28.745,70
KIRURGIEN ITXARON ZERRENDAK	12.922,70	104.430,41	117.353,11
Guztizko orokorra	546.241,55	932.738,21	1.478.979,76

4. Kapitazioa eta dispersioa

2023an, erizainen kapitazio-maila handitzeko kalkuluak egin ziren, A mailarekiko txikiagoa den ehunekoak estatutuan ezarritako mailen arteko proportzioa errespetatuz; eta dispersio-maila medikuena baino handiagoa izan dadin, egiaztatutako mailarekiko proportzioan (erizainak dira gehien lekualdatzen direnak). 2024ko aurrekontuetarako prestatu zen proposamenean sartu ziren emaitzak.

Konpromiso horri aurre egiteko berariazko aurrekontu-kontsignaziorik lortu ezenez, aldaketaren negoziazioa atzeratu egin zen, finantzatzeko gerakinen bat geratzen bazen ere. Izan ere, A eta B karrerarako partidan egon zitekeen, aurreko ekitaldietan exekutututakoa ikusita. Hala ere, gas-tua handitzeko plantilla indartu zenez, horretarako zegoen kreditua gastatzea erabaki zen, eta osasungintzako langile diplomadunei ere mesede egin die. Izan ere, lansariaren igoera, ekitaldi honetan, lanbide-karrerako atzerapenen ordainketei zor zaie batez ere.

2024. urtearen amaieran, berriro hartu zen kontuan I. kapituluaren esleitzeko eskaerarako, eta, aurrekontua bukatuta ez badago ere, aztertuko dugu pixkanakako konpromisoa har dezakegun, C eta D karrerarako bezala.

5. Ezkutaketa

Dagoeneko IRATIIn tresna digitalak ezarri dira, txanden arteko informazio-transmisioaren denbora ahalik eta gehien murrizteko.

Mahai sektorialean eman dute horren berri.

Osasunbide osorako eraturako zaintza taldeak eskatuta, horri buruzko inkesta bat egin zen Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan, eta tresna erabiltzeko formazioa hobetzeko neurriak hartu ziren.

Inkestak bi alderditatik egin zen:

a. Unitate asistentzial guztietako erizaintza-unitateetako burutzei egindako inkesta.

Edukia:

- Zenbat denbora ematen dute partea kontatzeko, batez beste?
- Goizeko txanda
- Arratsaldeko txanda
- Gaueko txanda
- Ordenagailua erabiltzen dute horretarako?
- Zer transmititzen diote hurrengo txandakoei?
- Laburpen-fitxa ezagutzen dute? Laburpen-fitxa erabiltzen dute?
- Zure unitateko parteei buruz duzun iritzia

b. Trantsizio luzeagoa duten unitateetako erizaintza-unitateetako burutzeekin elkarrizketa, prozesua hobeto ezagutzeko.

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko ekintza planaren abiapuntua hau izan zen: zenbat eta erregistroa hobe izan, orduan eta errazagoa izanen dela erizaintzat hurrengo txandan pazienteen egoera eta bilakaera ezagutzea. Erizaintzako parteak laburra eta zehatza izan behar du, erregistratu gabeko salbuespenezko egoerak soilik zehaztuta. Erizaintzako parte emateko eboluzioari eta moduari dagokionez, erregistroan eta prestakuntzan sakontzea proposatzen zen.

1) Unitate-buruei laguntza ematea, erregistroak ondo betetzeak duen garrantzia eta betebeharra nabarmendu dezaten.

2) IRATIn zaintza-erregistroa indartzea. Esperimentzia pilotu bat jarri zen abian ospitaleratze kirurgikoaren eremuan, eta unitate guztietara hedatu

ahal izanen da. Ekintza hori unitate horien kudeaketa-itunen barruan dago.

Itunaren helburua: zaintza-erregistroa indartzea

Metodologia:

1) Unitate bakoitzean zehaztea zein erregistro jo daitezkeen oinarrizkotzat eta nahitaezkozat

2) Langileak prestatzea eta informatzea

3) Oinarrizko behaketa eta aukeraketa bat egitea esku-hartzearen aurretik, hasierako egoera zein den jakiteko (adibidez: gailuen erregistroa, zauriak, zainketen sinaduren ehunekoa, eta abar)

4) Gailuen eta zaurien erregistro egokian sakontzea, balorazioa egitea, eta tresnak eskaintzen dituen funtzionalitateak erabiltzea.

5) Txandan egiten diren zaintza-jardueren sinadura sustatzea.

Adierazlea	Neurketa/formula	Hasierako balioa/helburua	Amaierako balioa	Iturria
Zaintza-erregistroa indartzea	Agendan sinatutako jarduera kopurua /Agendako jarduera kopurua, guztira	Helburua: gutxienez hasierako balioaren % 20 baino gehiago	Egindako lehen aukeraketaren arabera	Iratiko euskarritaldea
	Adostasuna dago unitatean erregistratu beharreko oinarrizko datuei buruz			Erizaintza-unitateetako burutzen txostena
	Unitatean egindako erregistroari buruzko prestakuntza-jarduerak			Erizaintza-unitateetako burutzen txostena

c. Jarduera erregistratzearen garrantziari, betebeharrari eta derrigortasunari buruzko formazioa. Aurreko urteetan egindako ikastaroa eskema honen bidez errepikatzea:

EDUKIA	TXOSTENGILEAK:
Osasunean IKTak erabiltzeari, datuak babesteari, sekretu profesionalari eta konfidentzialtasunari buruzko araudia.	Osasun Informazioko Sistemen Zerbitzua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua
Erizaintzako erregistro informatizatuen edukiak: Erregistroen definizioa, funtzioa eta erabilgarritasuna Nola erregistratzen dugu? Erregistroen legezko alderdi etikoak	IRATiko erregistroen lantaldea / Zainketetako garapen-area
Erregistroak behar bezala betetzean eragiten duten faktoreak: Faktoreen analisisa Erabilgarritasunaren pertzepzioa	IRATiko erregistroen lantaldea / Zainketetako garapen-area
“Bilakaera-orrien erregistroa” hobetzen: Bibliografia berrikustea Bilaka-orrien analisisa, adibide praktikoak	IRATiko erregistroen lantaldea / Zainketetako garapen-area
Bilakaera-orria betetzeko hobetzeko areak: profil desberdinak.	IRATiko erregistroen lantaldea / Zainketetako garapen-area

d. Erizaintzako prestakuntza IRATI tresnari eta bere funtzionaltasun guztien erabilerari buruz. Bilakaera-orriaren erregistroa eta pazientearen laburpen-fitxa sartzea, txanda aldaketan transmititzeko.

e. Lantaldea sortzea, txanda aldatzean eman beharreko informazioa definitzeko. Informazioaren laburpena, bideoa edo infografia, taldeak adostutakoa zabaltzeko.

IRATIIn garapenak sartzea ere onartuko da, hala nola behaketa subjektiboak egin ahal izatea.

6. Erizain espezialisten plazak

Erizain espezialisten hainbat plaza sortzeko espediente bat izapidetu genuen, baina, aurrekontu arrazoiak zirela eta, ezin izan zen onartu Plantilari buruzko Foru Dekretuaren aldaketa.

Hori dela eta, prestatzen ari garen beste espediente batean, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan Pediatriako Erizain Espezialistako plaza bat; eta Oinarrizko Osasun Laguntzarako Familia-

ko eta Komunitateko Erizain Espezialistako 3 plaza sortzea eskatuko dugu. Osasun Mentaleko eta Lizarrako plazak amortizatzeko ekarpenari esker, Oinarrizko Osasun Laguntzarako Familiako eta Komunitateko Erizain Espezialista bat eta Osasun Mentalerako Erizain Espezialista bat sortzea planteatu ahal izan da.

Espedientea zentro guztietara eraman da, datuak berrikusteko.

Espediente berria urrian Funtzio Publikora bidaltzea aurreikusten dugu.

7. Unitateetako burutzak antolatzea

2023an onartu eta egin ziren aldaketak, eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko 77 unitate-burutzari eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleko 7 unitate-burutzari eragin zieten.

8. Oinarrizko Osasun Laguntzan profesional gehiago gehitzea

Azken bi urteotako (2023 eta 2024) ekintza berrien ondorioz, honako hauek gehitu dira:

OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO EKINTZA BERRIAK			
	2023	2024	GUZTIRA
ERIZAINA	41	1	42
FISIOTERAPEUTA	6	6	12
GUZTIRA	47	7	54

9. Jaiegun berezietan lan egiteagatiko osagarria

Dagoeneko ordaintzen ari da, araudiaren aldaketa beteta. Jaiegun berezietan ordaindutako zenbatekoa 1.481.368 eurokoa da, eta horietatik erizainek 591.207,98 euro jaso zituen, guztizkoaren % 39,90.

10. Lanpostuan egin beharreko guardiak, fisikoak eta lokalizatuak

Dagoeneko ordaintzen zaie.

2023ko apirilaren 19tik aurrera, guardiaren prezioa igo egin zen, 2022ko abenduarekin alderatuta; beraz, orduko prezioa 1,15 euro igo zen presentzia fisikoko guardiarentzat, eta 0,58 euro guardia lokalizatuarentzat.

Zenbatekoei dagokionez, 2023ko maiatzetik, 262.001,75 euro ordaindu zaie erizainei presentzia fisikoko guardietan, eta 122.829 euro guardia lokalizatuetan.

11. Barneko profesionalen eta formazio aldian dauden egoiliarren tutoretzagatiko konpentsazioa

2023an 42.699,05 euro ordaindu zaizkie erizaintzako tutoreei (31 tutore). 2024an, 43.178,91 euro, 30 pertsonari dagozkienak.

Trebatzen ari diren barneko profesionalen eta egoiliarren tutoretzagatiko konpentsazio horiek ordaintzen aritzeaz gain, izapidetzen ari den Foru Dekretuaren proiektuan (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostuak sartzea eta betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretua aldatzen duena) 31 ter artikulua berria sartu da, mugikortasun iraunkorreko prozeduraren d) idatz-zatian (lehiaketa iraunkorra izan ezik) honako hau ezarri delarik: "erizaintzako espezialitateen batean espezialista-titulua duten izangaiek lehenatasuna izanen dute irakaskuntza-unitate gisa akreditatzeko espezialitate hori beharrezkoa den esparruetan eskaintzen diren lanpostu hutsak bete-

tzeko. Espezialitate horretako pertsona batek baino gehiagok parte hartu nahi izanez gero, merezimen-
duetan puntuaziorik handiena lortzen duenari eslei-
tuko zaio eskainitako lanpostu hutsa. Berdinketak
jarraitzen badu, aitortutako antzinakotasunik han-
diena duenari esleituko zaio.”

Horrela, erizaintzako espezialistei tutoretzak
egin eta tutoretzen ordaina jaso dezaketan lan-
postuetarako sarbidea errazten zaie.

12. Betetzen zailak diren lanpostuak dituzten erizain eta fisioterapeuten lekualdatze- gastuetarako kalte-ordaina

Martxoaren 29ko 11/2023 Foru Legeak errege-
lamendu bidezko garapen bat ezartzen zuen,
estaldura zaileko postutik kasuan kasuko areako
burutzara dagoen distantziagatik kalte-ordaina zein
lanpostutan ordaindu behar zen identifikatzeko.

Egindako proiektua 2024ko lehen hiruhilekoan
aurkeztu zen 2024ko apirilko mahai sektorialean,
eta akordio bat lortu zen 2024ko ekaineko mahai
sektorialean. Horren ondoren, informazio publikoa
eta administrazio-izapideak egin ziren, eta oraindik
ez dira jaso jada bildutako nahitaezko txostenak.

13. Osasuneko mahai sektorialaren deialdia

Legegintzaldian zehar, 8 aldiz bildu da mahai
sektoriala (2023ko urrian, urtarrilean, otsailean,
apirilean, maiatzean 2 aldiz, ekainean eta irailean)
eta 9. bilera egiteko deialdia egin zen, urriaren
9an egiteko. Horrez gain, zenbait bilera egin dira
berariazko lantaldeekin (2 karrera profesionala
erregulatzeko; 2 mugikortasunerako eta betetzeko
zailak diren lanpostuetarako; lehen mailako eta
arreta espezializatukoa/ospitalekoaren gainkarga-
talde bakoitzeko 3).

Urriaren 11n bilera egin zen SATSEko eta Fun-
tzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko ordezkarie-
kin, goian aipatutako ekintzak berrikusteko.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua-
ren 215. artikuluan xedatuari jarraikiz ematen dut
horren berri.

Iruñean, 2024ko urriaren 18an

Osasun Departamentuko kontseilaria: Fernan-
do Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00400. Galdera, toki-entitateentzako dirulaguntzei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak toki-entitateentzako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak

galdera egin du, idatziz erantzun dakion, toki entitatei laguntzeko dirulaguntzen deialdien inguruan eta, bereziki, bizikidetzako teknikariaren figuraren eta kulturarteko bizikidetzako eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokako proiektuak finantzatzeko deialdiari dagokionez (11-24/PES-00400). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. Kulturarteko bizikidetzako eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokako teknikariaren figura (TECIR) finantzatzeko toki-entitateentzako dirulaguntzen deialdiei dagokienez, onuradun izan diren toki entitateen eta jasotako laguntzen zenbatekoen zerrenda ematen da.

Deialdia	Toki entitateak	2023
86E/2022 Foru Agindua, azaroaren 18koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariarena	Burlatako Udala	29.000 €
	Erriberri eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	27.077,49 €
	Fiteroko Udala	15.223,30 €
	Iruñeko Udala	29.000 €
	Lizarrako Udala	29.000 €
	Artaxoako Udala	11.345,44 €
	Cintruenigoko Udala	29.000 €

Deialdia	Toki entitateak	2023
61E/2023 Foru Agindua, maiatzaren 10ekoa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana	Zarrakastelu aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	10.872,01 €
	Leringo Udala*	14.067,70 €
	Vianako Udala*	12.421,39 €
	Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea	20.000 €

*Ez zitzaien emandako dirulaguntza ordaindu ez baitzuten TECIRik kontratatu ezarritako epean.

Deialdia	Toki entitateak	2024	2025	2026
132E/2023 Foru Agindua, azaroaren 24koa, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak emana	Erriberriko eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	29.000 €	29.000 €	29.000 €
	Cintruenigoko Udala	29.000 €	29.000 €	17.115,75 €
	Burlatako Udala	29.000 €	29.000 €	29.000 €
	Fiteroko Udala	15.535 €	18.642 €	4.660,50 €
	Iruñeko Udala	29.000 €	29.000 €	29.000 €
	Zarrakastelu aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	29.000 €	29.000 €	29.000 €
	Artaxoako Eskualde Oinarrizkoaren Gizarte Zerbitzuen Taldea	13.130,64 €	17.507,52 €	10.212,72 €
	Leringo Udala	10.194,44 €	17399,04 €	17.399,04 €
	Berriozarko Udala	29.000 €	29.000 €	29.000 €
	Elizagorriko, Lodosako, Mendabiako, Sartagudako eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	13.762,42 €	23.592,72 €	23.592,72 €
	Eguesibarko Udala	18.402,53 €	29.000 €	29.000 €
Tafallako Udala	19.773,30 €	9.858,72 €	23.728 €	

Deialdia	Toki entitateak	2024	2025	2026
81E/2024 Ebazpena, ekainaren 9koa, Migrazio Politiketako zuzendari nagusiarena	Azkoien aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	8.889,68 €	26.669,04 €	26.669,04 €
	Tuterako Udala	8.903,76 €	29.000 €	29.000 €
	Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua	15.421,47 €	29.000 €	29.000 €
	Sakanako Mankomunitatea	29.000 €	16.830,96 €	29.000 €

2. Kulturarteko bizikidetzeta eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borroka sustatzeko proiektuak finantzatzeko toki-entitateentzako dirulaguntzen deialdiari dagokienez, onuradun izan diren toki entitateen eta jasotako laguntzen zenbatekoen zerrenda ematen da.

Deialdia	Toki entitateak	2020
9/2020 Foru Agindua, maiatzaren 13koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana	Vianako Udala	10.260 €
	Burlatako Udala	13.302,24 €
	Cintruénigoko Udala	15.000 €
	Lizarrako Udala	14,5000 €
	Iruñeko Udala	14999,91 €
	Fiteroko Udala	15000 €
	Artaxoako Eskualde Oinarrizkoaren Gizarte Zerbitzuen Taldea	2.815 €
	Faltzesko Udala	3.000 €
	Tuterako Udala	2.725 €
	Elizagorriko, Lodosako, Mendabiako, Sartagudako eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	600 €
	Sakanako Mankomunitatea	2.995,35 €
	Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	2.200 €

Deialdia	Toki entitateak	2021
1E/2021 Foru Agindua, otsailaren 1ekoa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana	Fiteroko Udala	16.000,02 €
	Burlatako Udala	24.999,97 €
	Mendabiako Udala	8.000 €
	Milagroko Udala	22.091,25 €
	Lizarrako Udala	31.000,00 €
	Irurtzongo Udala	17.080,38 €
	Vianako Udala	19.094,82 €
	Sakanako Mankomunitatea	3.353,16 €
	Cintruenigoko Udala	6.000 €
	Cintruenigoko eta Fiteroko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	6.000 €
	Faltzesko Udala	5.770,50 €
	Izarbeibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	2.200 €
	Tafallako Udala	4.200 €
	Leitza Goziueta, Areso eta Aranoko Gizarte zerbitzuen Mankomunitatea	4.479,18 €
	Zizur Nagusiko Udala	6.000 €
Artaxoako Eskualde Oinarrizkoaren Gizarte Zerbitzuen Taldea	3.126,30 €	
Leringo Udala	6.000 €	

Deialdia	Toki entitateak	2022
5E/2022 Foru Agindua, otsailaren 11koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana	Burlatako Udala	25.000 €
	Azkoiengo Udala	25.000 €
	Lizarrako Udala	25.000 €
	Irurtzungo Udala	7.179 €
	Fiteroko Udala	14.822,69 €
	Tuterako Udala	6.000 €
	Burlatako Udala	2.799,86 €
	Zarrakastelu aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	6.000 €
	Erriberri aldeko Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea	6.000 €
	Sakanako Mankomunitatea	6.000 €
	Vianako Udala	6.000 €
	Tafallako Udala	6.000 €
	Artaxoako Eskualde Oinarrizkoaren Gizarte Zerbitzuen Taldea	4.328 €
	Aiegiko Udala	3.413 €
	Leitza Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte zerbitzuen Mankomunitatea	3.459,14 €

Deialdia	Toki entitateak	2023
91E/2022 Foru Agindua, abenduaren 12koa, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak emana	Burlatako Udala	25.000 €
	Iruñeko Udala	25.000 €
	Leringo Udala	14.785 €
	Lizarrako Udala	25.000 €
	Zarrakastelu aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	6.000 €
	Sakanako Mankomunitatea	6.000 €
	Andosillako Udala	6.000 €
	Artaxoako oinarrizko eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	5.924,00 €
	Tuterako Udala	6.000 €
	Tafallako Udala	6.000 €
	Aiegiko Udala	5.125,00 €
	Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Mankomunitatea	6.000 €
	Torralba del Río Udala	3.166 €

Migrazio Politiketako zuzendari nagusiaren uztailaren 12ko 108E/2024 Ebazpen bidez, onetsita geratu zen toki erakundeentzako eta irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateentzako dirulaguntzen deialdia, 2024. urterako, kulturaren arteko bizikidetzaren eta arrazakeriaren nahiz xenofobiaren aurkako borroka sustatzeko proiektuetarako (174. NAO, abuztuaren 27koa). Une honetan ebazteko zain dago.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 22an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00401. Galdera, bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00401). Hona hemen galdera hori:

- Kontseilariak bakarrik dauden adingabeentzako egoitza-baliabideei buruzko zenbait datu eman ditu Kanarietako hedabideetan. Pisu bakoitzak 5 adingabe hartzeko tokia duela esan du. Zer zentrori buruz ari da? Ez dator bat departamentuak eman zizkigun datuekin.

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

11-24/PES-00308 galdera parlamentarioaren erantzunean jakinarazi zen zeintzuk diren Haurtzaroaren, Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordeztaren mende dauden bizitegi baliabide guztiak, zaintza nahiz babesgabetasun egoe-

ran dauden haur eta nerabeei harrera egitekoak, barnean hartuta bakarrik dauden migratzaileak.

Erantzun horretan adierazi genuen autonomiako 24 pisu daudela, eta gehienek bost neska-mutil hartzen ahal dituztela.

Horiek dira Kanarietako telebistak emandako informazioan aipatzen ziren bizitegi baliabideak. Grabazioan zehar, dauden beste baliabide batzuen eta horien askotariko tipologiaren inguruan ere erantzun eta informatu zen, nahiz eta informazio pieza egitean adierazpenak osorik ez jaso, kazetarien lana egitean ohikoa izaten den bezala; izan ere, normala izaten da egindako adierazpenaren lagin batzuk soilik aukeratzea azkenean.

Autonomiako pisuak adin-nagusitasunetik gertu dauden neska-mutilentzako dira, autonomiako nahikoa gaitasun eskuratu badute. Laguntza gehiago behar duten haur gazteagoentzako baliabideak oinarrizko bizitegi harrera deritzenak dira eta zortzi edo bederatzita pertsona hartzen ahal dituzte.

Baliabide guztietan bereizketa barik ematen zaie arreta bakarrik dauden haurrei eta Nafarroako familietatik datozen haurrei.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00402. Galdera, Kanarietatik heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzak jaso beharreko finantzaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Kanarietatik heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzak jaso beharreko finantzaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00402):

- Nafarroako Gobernuak zer finantzaketa jaso du edo jasoko du Kanarietatik Nafarroara heldu eta bakarrik dagoen adingabe bakoitzeko?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak bakarrik duden neska-mutil eta nerabe migratzaileak hartzeko jasotzen

duen finantzaketa hitzarmen ekonomiko bidez ezartzen da, eta ez da Ministerioak horretarako ezartzen duen funtsen banaketaren parte. Edonola ere, ezarritako zenbatekoak gainerako autonomia erkidegoei adingabe bakoitzeko esleitutako bera izan beharko luke.

Bakarrik dauden neska-mutil eta nerabe migratzaileen arreta 2024an finantzatzeko kreditua autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoen artean (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa kanpoan utzita) banatzeko 2024ko ekainaren 11n egindako proposamenaren arabera, mugitutako haur bakoitzeko esleipena eguneko 145 eurokoa da, hau da, urteko 52.925 euroko munta, guztira. Kostu hori kalkulatzeko abiapuntua autonomia erkidegoek emandako batez besteko kostu nazionala da. Nafarroari hamabost neska-mutil egokitu zaizkio banaketa horretan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialetako eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00403. Galdera, Belateko eta Almandozko tunelak itxita eduki tzeko aurreikusten den egutegiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Belateko eta Almandozko tunelak itxita eduki tzeko aurreikusten den egutegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Belate eta Almandozko tunelak itxeko aurreikusitako egutegiari buruz (11-24/PES-00403). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Egun bat baino gehiagorako itxeko aurreikusitako egutegia aldi hauetarako:

2024-10-31tik 2024-12-31ra bitarte: Eguraldiaren, mendigune harritsuaren izaera iragarrezinaren eta tunelaren instalazioen eta trafikoaren hurbiltasunaren arabera, egunen batean moztu ahalko da, betiere errepideko langile eta erabiltzaileentzako segurtasun egoerak, tunelaren edo haren elementuren baten integritatea edo mantentze lanak kontuan hartuta. Behar izanez gero, leherketa lanengatik moztuko litzateke, ateratzen den materiala segurtasun osoz kenduko litzateke eta errepidea erabiltzeko baldintza egokietan utziko litzateke berriro.

Mozketaren bat egiten ahalko da, seinale horizontalak eta bertikalak jartzeko edota tunela operatzearekin zerikusia duten beste arrazoi batzuentzat.

Arestian azaldutako arrazoi guztiak direla-eta, ezin da egutegirik ezarri itxieren aurreikuspenetarako.

– 2025: Aurreko galderan azaldutako arrazoi berberengatik, ezin da egutegirik egin leherketetarako eta mozketetarako.

– 2026: Ez da aurreikusten egun bat baino gehiagoko mozketarik eginen denik, larrialdienga-

tik, bat-bateko gertakariengatik edota tuneleko operazioengatik eta mantentze lanengatik ez bada.

2. Leherketen eta gaueko obren exekuzioen kronograma 2024-08-19tik 2024-10-31ra bitarte.

Lau leherketa egin dira orain arte, norainoko desberdinetakoak, Meatzeen Atalak ezarritako mugen barruan. Espero da beste bat egiten ahalko dela berriz ireki baino lehen, betiere kanpo faktoreak kontuan hartuta eta proiekturako esleitutako langileen segurtasun irizpideen eta irizpide teknikoaren arabera.

Gaur egun hiru txandatan ari dira lan egiten tunelaren barruan.

3. Leherketen eta gaueko obren exekuzioen kronograma 2024-10-31tik 2025eko abendura bitarte:

– Lehenengo galderarako erantzunean azalduenez, leherketako lanei eta tunelaren hegoaldeko sarreraren lur-erazketako indusketekin lotutakoiei dagokienez, leherketa zehatzak egiten dira lur-erazketa horien indusketak amaitu artean. Minututan edo ordutan egiten dira lurraren baldintzen eta egonkortasunaren arabera, bai eta pertsonen, bidearen erabiltzaileen eta langileen segurtasunaren lehentasunaren arabera ere.

4. Leherketen eta gaueko obren exekuzioen kronograma 2024-10-31tik 2026ko abendura bitarte:

Aurreko galderetan azaldutako arrazoi berberengatik, ezin da egutegirik egin leherketetarako. Tunelaren barruan hiru txandatan ari dira lan egiten.

5. Tunelak ixtea justifikatuko luketen arrazoiak:

– Aurrez azaldutako arrazoiak gain, tunelak ixten ahalko lirateke trafiko istripuengatik, tunelaren integritatearen arazoengatik, aldi baterako ixtea aholkatzen duten inposizio teknikoengatik edota beharrezko mantentze lanengatik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 22an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00404. Galdera, Valle de Odieta SCL sozietateak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Valle de Odieta SCL sozietateak aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00404 idatziz erantzuteko galdera egin du, Valle de Odieta SCL sozietateak Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan aurkeztutako ondare erantzukizuneko erreklamazioari buruz. Hain zuzen ere, 19,119 milioi euroko kalte globalak konpontzeko eskatu zioten sozietateari Ingurumeneko zuzendari nagusiaren urriaren 30eko 850E/2018 Ebazpenari lotuta, zeina Landa Garapeneko eta Ingurumeneko eta Toki Administrazio-ko kontseilariaren martxoaren 6ko 25E/2019 Foru Aginduaren bidez berretsi baitzen. Hona hemen

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

1. Nafarroako Kontseiluak 23/2023 ebazpena eman ondotik, Nafarroako Gobernuak zer erabaki hartu zuen Valle de Odieta SCL sozietateak planteatu zuen ondare-erantzukizuneko erreklamazioa dela-eta?

Nafarroako Gobernuak ez du inolako erabakirik hartu Nafarroako Kontseiluak 23/2023 ebazpena eman ondotik, oraindik ez baita ondare erantzukizuneko espedientea amaitu.

2. Onartu al zen Kontseiluaren iritzia, zeinean 3.751.753 euroan balioetsi baitzen lortu gabeko irabazia dela-eta sortutako kaltea?

Aurreko erantzunean adierazi denez, ondare erantzukizuneko espedientea oraindik ari da izapidetzen eta, beraz, oraindik ez da inolako behin betiko erabakirik onartu erreklamazioaren funtsaren inguruan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 22an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00405. Galdera, Solaria enpresak sustatutako Serena 1 eta 3 proiektuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Solaria enpresak sustatutako Serena 1 eta 3 proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Solaria enpresak sustatutako Serena 1 eta 3 proiektuei buruz (11-24/PES-00405). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Solaria enpresak Serena Solar 1 eta 3 proiektuen egokitzapenik aurkeztu al du, Lurralde Kohe-siorako kontseilariaren uztaileko foru-aginduan emandako jarraibideetan oinarrituta?

Ez.

Solaria enpresak beste proiekturik aurkeztu al du Adiosko, Muruzabalgo eta Utergako udal lurretan?

Ez.

Hala baldin bada, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak Klima Aldaketaren Legean jasotako neurriak sustatuko al ditu proiektu horien aurkako "errefus sozial nabaria" ikusita, errefus hori arintzen laguntzeko (esate baterako, parkearen jabetza inguru-neari irekitzea edo tokiko energia-erkidegoekin lankidetzan aritzea)?

Klima Aldaketari buruzko Legak 2022ko apirilaren 2an hartu zuen indarra. Lege horretan exijitzen dena ez da aplikatzekoa Serena Solar 1 eta 3 proiektuetan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00406. Galdera, Belosoko BHZ, Ilundain/Etxegaraiko BHZ eta Martzillako BHZ okupatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Belosoko BHZ, Ilundain/Etxegaraiko BHZ eta Martzillako BHZ okupatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00406). Hona hemen galdera horretan eskatzen duena:

• Zein da, gaur, Belosoko BHZren, Ilundain/Etxegaraiko BHZren eta Martzillako BHZren okupazioa?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Gaur egun, hauxe da okupazioa:

	Neska-mutilak eta nerabeak
Belosoko BHZ	24
• Orvinako BHZ	7
• Barañaingo BHZ	8
Ilundaingo BHZ	14
• Argarai BHZ	10
Martzillako BHZ	80

Nafarroako Gobernuak beste BHZ bat ireki zuen ekainean Barañainen Belosoko BHZren gainokupazioari aurre egiteko, eta neurriak hartu zituen plaza berriak sortzeko eta adingabeei arreta emateko kasuko ekipoen inguruan. Zentro horrez gain, beste BHZ bat ireki zen Orvian duela bi urte. Esteka honen bidez, informazioa kontsultatzen ahal duzu:

<https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/nafarroako-gobernuak-6-eta-12-urte-bitarteko-adingabeentzako-zentro-berri-bat-jarriko-du-abian-haurren-babesgabetasuna-gero-eta-handia-goa-baita>

PES-00407 galderan, sortutako premiei erantzuteko kontratatutako langileen erreferentzia.

Adierazi behar da azken hilabeteotan areagotu egin direla adingabeak babesgabetasun arrazoiengatik larrialdi zentroetan sartzeko kasuak; hortaz, Nafarroako Gobernuak etengabe ari da lanean premien hazkunderari erantzuteko, eta horregatik jarri ditu zentro eta arreta ekipo berriak.

Laster, aurreikusten da harrerarako baliabide berriak irekiko direla zenbait modalitatetan, arretaren premia gorakorrei erantzuna emate aldera.

Adierazi behar da, halaber, BHZak adingabeentzako harrerako eta larrialdiko zentroak direla; beraz, etorrerak egon ohi diren garaietan gainokupazioko egoerak egoten dira, baina beste une batzuetan okupazioa egokia izaten da dagoen plaza kopururako.

Adingabeentzako behaketa eta harrera zentro bat (BHZ) aldi baterako babes baliabidea da, lehen harrerako berehalako arreta, balorazioa eta esku hartzea egiten dituen aldi mugatu batean zehar babesgabetasun oso larriko egoeran dau den haur eta nerabeentzat.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00407. Galdera, Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn kontratatutako langileen bilakaerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn kontratatutako langileen bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 4ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00407). Hona hemen galdera:

• Zein da Belosoko BHZn, Ilundain/Etxegaraiko BHZn eta Martzillako BHZn azken urte honetan hilabeteka kontratatutako langileen bilakaera?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Hamalau urte baino gutxiagoko neska-mutilentzako BHZetan (Beloson, Orvinan eta Barañainen):

• Funtzionamendu arrunteko Langileak (gainokupaziorik ez):

– Langileak: Egiturazko 26 lanpostu.

• Azken urtean hilabeteka kontratatutako langileak. Kontratutako pertsonak aipatzen ditugu kontuan hartuta lanpostu bat hilabetean zehar zenbait pertsonak betetzen ahal dutela lan merkatuaren baldintzatzaileen arabera.

- Urtarrila: 2 pertsona gehiago
- Otsaila: 3 pertsona gehiago
- Martxoa: 19 pertsona gehiago
- Apirila: 19 pertsona gehiago
- Maiatza: 25 pertsona gehiago
- Ekaina: 36 pertsona gehiago
- Uztaila: 23 pertsona gehiago
- Abuztua: 10 pertsona gehiago

Ilundain/Etxegaraiko BHZn haxe adierazi behar da:

• Funtzionamendu arrunteko Langileak (gainokupaziorik ez):

– Langileak: 30 postu

• Azken urtean hilabeteka kontratatutako langileak: Kontratutako pertsonak aipatzen ditugu kontuan hartuta lanpostu bat hilabetean zehar zenbait pertsonak betetzen ahal dutela lan merkatuaren baldintzatzaileen arabera.

- Urtarrila: 23 pertsona gehiago
- Otsaila: 18 pertsona gehiago
- Martxoa: 10 pertsona gehiago
- Apirila: 10 pertsona gehiago
- Maiatza: 26 pertsona gehiago
- Ekaina: 36 pertsona gehiago
- Uztaila: 33 pertsona gehiago
- Abuztua: 31 pertsona gehiago

Martzillako BHZ bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileentzako lehen harrerako baliabidea da, eta bat-batean sortutako inguruabarrak artatzeko lanpostuak honela bete dira:

• Funtzionamendu arrunteko Langileak (gainokupaziorik ez):

– Langileak: Egiturazko 38 lanpostu.

• Azken urtean hilabeteka kontratatutako langileak. Kontratutako pertsonak aipatzen ditugu kontuan hartuta lanpostu bat hilabetean zehar zenbait pertsonak betetzen ahal dutela lan merkatuaren baldintzatzaileen arabera.

- Maiatza: 6 pertsona gehiago
- Ekaina: 8 pertsona gehiago
- Uztaila: 8 pertsona gehiago
- Abuztua: 9 pertsona gehiago
- Iraila: 12 pertsona gehiago
- Urria: 21 pertsona gehiago

• Urria, sukaldaritzako taldeari ere gehitu zitzaion pertsona bat.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-24/PES-00408. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera (11-24/PES-408) egin du –Nafarroako Parlamentuan 202406717 zenbakiarekin erregistratu da, 2024ko urriaren 7an–, jakiteko zertan den Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren kontratazioa. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa, bat etorri Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) emandako informazioarekin:

Lehen. Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren kontratazioaren egoera.

2024ko martxoaren 27an, Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeko lizitazio-iragarkia argitaratu zen Nafarroako Kontratazio Atarian (bai eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere).

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu zenerako, zeina 2024-05-29rako finkatu baitzen lizitazio-iragarkian, eskaintza bakarra aurkeztu zen.

Behin kontratazio mahaia eratu ostean, eta 1. gutun azala ireki ondoren, aurkeztutako eskaintza

bakarra baztertua erabaki zen, baldintza arautzaileen agirian ezarritako atalasea baino puntuazio txikiagoa lortu baitzuen (balio iritzien mende jarritako irizpideetan).

2024ko irailaren 3an, baztertua izan zela jakinarazi zitzaion eskaintza aurkeztu zuen lizitatuzaileari, eta 2024ko irailaren 13an, Nafarroako Kontratazio Atarian iragarri zen kontratuaren adjudikazioa eman gabe geratu zela.

2. Kontratuaren adjudikazioa eman gabe geratzeko arrazoia

Lizitatuzaileak egindako proposamenak 24 puntu lortu zituen balio iritzieren mende jarritako irizpideak aplikatu ondoren, eta baldintza-agiriaren 20. estipulazioak haxe xedatzen zuen:

Gutxieneko puntuazioa:

1. gutun azalean 30 puntuko gutxieneko puntuazioa ezartzen da.

Gutxieneko puntuazioa baino puntuazio txikiagoa lortuz gero, eskaintza baztertu egingen da, hargatik eragotzi gabe teknikoki desegokiak diren edo kontratua behar bezala gauzatzea bermatzen ez duten eskaintzak baztertzeko ahalmena, hori guztia Kontratuaren Foru Legaren 59.2.c artikulua arabera.

Horregatik baztertu zen lizitatuzaile bakarrak aurkeztutako eskaintza.

Beraz, lizitazioa eman gabe geratzeko arrazoia izan zen ez zela eskaintzarik egon baldintza arautzaileen agirian ezarritakoa betetzen zuenik.

Hirugarrena. Eman beharreko urratsak

Nafarroako Inbertsio Institutuaren Administrazio Kontseiluak 2024ko urriaren 22an izandako bileraren ostean, baloratuko da aukerarik dagoen prozedura negoziatu bat izapidetzeko.

Jakinarazten da emandako informazioa isilpekoa dela. Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetz.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00409. Galdera, 2023an eta 2024an enpresa-proiektuak foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko eskaerak ebazteko batezbesteko epeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak 2023an eta 2024an enpresa-proiektuak foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaratzeko eskaerak ebazteko batezbesteko epeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera

egin du 2023an eta 2024an foru intereseko inbertsio gisa deklaraturako enpresa proiektuak ebazteko batez besteko epeari buruz (11-24/PES-00409). Hona Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2023. eta 2024. urteetan foru intereseko inbertsio gisa deklaraturako enpresa proiektuak ebazteko batez besteko epea 74 egun dira (73,94).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedaturakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00410. Galdera, 2023an eta 2024an foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaraturako enpresa-proiektuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak 2023an eta 2024an foru-erkidegoaren intereseko inbertsio deklaraturako enpresa-proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 2023an eta 2024an foru intereseko inbertsio gisa deklaraturako enpresa proiektuen zerrendari buruz (11-24/PES-00410). Hona Nafarroako

Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Eskaturako informazioa eranskin gisa atxiki zaio idazki honi.

Hala ere, kontseilari honek jotzen du ez dela zuzena parlamentariak bere eskaera idatzizko galdera gisa kalifikatzea, idazkian eskatzen duena informazio hutsa baita, eta ez dio Gobernuari ezein galderarik egiten. Hori dela-eta, alde honen iritziz, informazio eskaera bat (PEI) aurkeztu behar zuen, eta ez idatzizko galdera (PES).

Horregatik, nahiz eta eskaturako dokumentazioa eman erantzunean, jakinarazten dizugu ezen, etorkizunean egoera hau errepikatuz gero, idazkia birkalifikatzeko eskaturako dugula behar bezala izapidetu dadin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga jauna

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentari guztien eskura dago Agorako Kudeaketa Parlamentarioa atalean).

11-24/PES-00411. Galdera, 2023ko zenbait ekitaldiren babesletzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 2023ko zenbait ekitaldiren babesletzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00411); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zein da Nafarroako Gobernuak 2023an ekitaldi hauek babestu izanaren justifikazioa?

– elDiario.es jardunaldia, Ekonomia zirkularra (18.150 euro)

– elDiario.es jardunaldia, Turismo Jasangarria (18.150 euro)

elDiario.es jardunaldia, Ekonomia Zirkularra:

Diario de Prensa Digital SL enpresak Espainiako hiriburuan ekonomia zirkularrari buruzko jardunaldi batzuk babesteko proposamena egin zuen. Proposamena haztatzean, gai nagusian jorratuko ziren askotariko ikuspegiak izan zituen Gobernuak abiapuntu, nola lehen sektorea hala industria eta kontsumoa, Nafarroako Gobernuaren politiken

ardatz estrategiko honen oinarriak baitira: ekonomiaren zirkulartsunarenak, alegia.

Eskaintza onartzeko unean, erabakirako irizpide nagusia ekitaldiak Nafarroako Gobernuaren markari ematen zion proiektzioa izan zen, publikitateko honako kontraprestazio hauetan oinarrituta:

Ekitaldia baino lehen:

– elDiario.es entitateak ekitaldiaren deialdia zabalduko du haren webgunearen bitartez eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa sartuko du babesle den aldetik.

– elDiario.es entitateak zenbait mezu elektronikoki bidaliko ditu 250.000 erabiltzaile baino gehiagoko datu base baten bitartez ekitaldiaren deialdiaren berri emateko audientziari.

Ekitaldiaren mikrowebgunean ekitaldiaren egitaraua eta askotariko xehetasunak agertuko dira, bai eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa ere, babesle den aldetik.

Ekitaldia elDiario-es entitatearen sare sozialen bidez sustatuko da, eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

Ekitaldian zehar:

– elDiario.es entitateak ekitaldiaren igorpena zabalduko du haren webgunearen bitartez eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

Ekitaldia zuenean igorriko da eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da aurkezpenean, babesle den aldetik.

Ekitaldiaren mikrowebgunean ekitaldiaren egitaraua eta askotariko xehetasunak agertuko dira,

bai eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa ere, babesle den aldetik.

Ekitaldia elDiario-es entitatearen sare sozialen bidez sustatuko da, eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

Ekitaldiaren ostean:

– elDiario.es entitateak ekitaldiaren kronika zabalduko du haren webgunearen bitartez eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

– elDiario.es entitateak mezu elektronikoko bat bidaliko die erabiltzaileei ekitaldiari buruz, eta bertan aipatuko du eskerrak ematen dizkiola Nafarroako Gobernuari babesle izategatik.

Publizitateko kontraprestazio horiek behar bezala justifikatu zituen babestutako enpresak, unitate kudeatzaileak ordainketa baimendu baino lehen.

elDiario.es jardunaldia, Turismo Jasangarria:

Diario de Prensa Digital SL enpresak turismo jasangarriari buruzko jardunaldi batzuk babesteko proposamena egin zuen.

Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiak jo zuen jardunaldi hori interesgarria zela Nafarroa Marka sustatzeko, S4 Estrategian ezarritako lehentasunetako batekin lotzen baitzuen marka: sektore turistikoarekin, hain zuzen ere. Horrez gain, Navarra Green Trantsizio Ekologikoko Estrategiarekin eta Lurralde eta Gizarte Kohesioko Estrategiarekin ere lotuta zegoen, eta guztiak dira Nafarroako Gobernuak onetsitakoak.

Proposamena onartzeko, unitate kudeatzaileak kontuan hartu zuen publizitateko honako kontraprestazio hauen balioa:

Ekitaldia baino lehen:

– elDiario.es entitateak ekitaldiaren deialdia zabalduko du haren webgunearen bitartez eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa sartuko du babesle den aldetik.

– elDiario.es entitateak zenbait mezu elektronikoko bidaliko ditu 250.000 erabiltzaile baino gehiagoko datu base baten bitartez ekitaldiaren deialdiaren berri emateko audientziari.

Ekitaldiaren mikrowebgunean ekitaldiaren egitaraua eta askotariko xehetasunak agertuko dira, bai eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa ere, babesle den aldetik.

Ekitaldia elDiario-es entitatearen sare sozialen bidez sustatuko da, eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

Ekitaldian zehar:

– elDiario.es entitateak ekitaldiaren igorpena zabalduko du haren webgunearen bitartez eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

Ekitaldia zuenean igorriko da streaming bidez eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da aurkezpenean, babesle den aldetik.

Ekitaldia igorri bitartean, askotariko partaidetza mahaien arteko atsedenetan, Nafarroako publizitate iragarki bat jarriko da.

Ekitaldiaren mikrowebgunean ekitaldiaren egitaraua eta askotariko xehetasunak agertuko dira, bai eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa ere, babesle den aldetik.

Ekitaldia elDiario-es entitatearen sare sozialen bidez sustatuko da, eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

elDiario.es entitateak eskerrak emanen dizkie Nafarroako Gobernuari eta ekitaldiko gainerako babesleei nahiz kolaboratzaileei inaugurazioan eta jardunaldiko zenbait unetan nahiz amaieran.

Nafarroako Gobernuak mintzalari bat izendatzen ahalko du jardunaldian antolatutako eztabaida mahaietako batean parte har dezan.

Ekitaldiaren ostean:

– elDiario.es entitateak ekitaldiaren kronika zabalduko du haren webgunearen bitartez eta Nafarroako Gobernuaren logotipoa agertuko da, babesle den aldetik.

– elDiario.es entitateak mezu elektronikoko bat bidaliko die erabiltzaileei, jardunaldiari buruzko laburpena jasotzen duena eta beharrezko informazioa ematen duena aurrez grabatutakoa kontsultatu ahal izateko podcast nahiz bideo bitartez. Mezu horretan eskerrak emanen zaizkio Nafarroako Gobernuari babesletzatik.

Aurreko publizitateko kontraprestazioak behar bezala justifikatu zituen babestutako enpresak, espedientearen unitate kudeatzaileak ordainketa baimendu baino lehen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 23an

Lehendakartzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00412. Galdera, Nafarroako Gobernuak elDiario.es-en publizitatea jartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Gobernuak elDiario.es-en publizitatea jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00412); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zerk justifikatzen du Nafarroako Gobernuak publizitatea jarri izana elDiario.es-en 2023ko kanpaina hauetan?

– Efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzea

– Nafarroaren Eguneko ekitaldien zabalkundea

Nafarroako Gobernuak urtero onesten du Publizitate Institutuzionalaren Plana. Komunikabideetan publizitate espazioen erosketa kontratatuz gero, kontratatutako iragarki eta espazioen kopuruaren definizioa publizitate kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera egiten da (1/2003 Foru Agindua, Tokiko Administrazioako kontseilariarena, Gobernuaren eledun den aldetik). Audientzien irizpide nagusia neurtzeko, Nafarroako 2022ko Audientzien Azterketa aplikatuko da, CIES SL enpresarena (komunikabideen, publizitate agentzien eta erakundeen finantzaketarekin egindakoa, tartean Nafarroako Gobernu bera).

Halaber, ekitaldi horiek dakarten proiektzio instituzionala interesgarria da Nafarroaren markarako. Ekitaldi horiek Nafarroako Gobernuaren ekintzaila esturaturalekin lerrotuta daude, eta marka babeslearen publizitate inpaktuaren balio itzulia dute.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 5ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00413. Galdera, Anatomia Patologikoko teknikariek Tuterako Reina Sofia ospitaleko laborategian egiten duten lanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Anatomia Patologikoko teknikariek Tuterako Reina Sofia ospitaleko laborategian egiten duten lanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, eta galdetu du nork gainbegiratzen duen Anatomia Patologikoko teknikarien lana Tute-

rako Reina Sofia Ospitaleko laborategian mediku anatomopatologorik ez dagoenean (11-24/PES-00413). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Anatomia patologikoko teknikariak ez dira etengabe gainbegiratzen lan egiten dutenean.

Lanean dauden bitartean anatomopatologiako mediku batek argitu beharreko zalantzar edo gahiren bat agertuz gero, medikua presentzialki egon artean itxaroten ahal bada hura argitzeko, orduan argitzen da; berehala egin beharreko kontu bat bada, berriz, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko anatomopatologoei egiten zaie kontsulta telefonoz edo telematikoki.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00414. Galdera, Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integralari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integralari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00414 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Errepide bidezko Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoko Plan Integralari

buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Zertan da errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzea?

Gaur egun lau emakida daude lizitatzeke:

Iruña-Irun, Baztan-Bidasoa eskualdea; Iruña-Pirinioetako eskualdea; Iruña-Lizarrak-Logroño-Donostia, Lizarrako eskualdea eta Erriberagoiena; eta Iruña-Donostia, Ipar-mendebaldeko eskualdea.

Iruña-Irun, Baztan-Bidasoa eskualdearen emakidak baditu ustiapen proiektua eta proiektu ekonomikoa. Eranskinak amaitzeko ari da lan egiten.

Beste hiru emakidei dagokienez (Iruña-Pirinioetako eskualdea; Iruña-Lizarrak-Logroño-Donostia, Lizarrako eskualdea eta Erriberagoiena;

eta Iruña–Donostia, Ipar-mendebaldeko eskualdea), kanpoko laguntza teknikoa lizitatuko da; hiru emakidak lizitatu ahal izateko aurretiko fasea da.

2. 2014az geroztik, noiz berri ziren berritutako emakidak eta noiz amaitzen da emakida horietako bakoitzaren indarraldia? Emakida horiek luzatzea aurreikusten baldin bada, noiz aurreikusten da luzatuko dela emakida horietako bakoitza?

Esleitutako emakidak:

Iruña–Soria, NAV-001: 2019ko azaroa

Iruña–Tafalla, NAV-002: 2022ko martxo

Iruña–Tutera–Zaragoza, NAV-003: 2023ko martxo

Iruña–Altsasu–Gasteiz, NAV-004: 2023ko maiatza

Concesión futura	Empresa	Nº Concesión	Denominación concesión	Inicio del servicio	Fecha vencimiento contrato	Duración
SORIA	CONDA, S.A.	NAV-001	PAMPLONA/IRUÑA - SORIA	13 de noviembre de 2019	12 de noviembre de 2029	10 años
TAFALLA	INTRARRIAGA S.L.	NAV-002	PAMPLONA/IRUÑA - TAFALLA, ZONA TAFALLA	23 de marzo de 2022	22 de marzo de 2028	6 años
TUDELA	LÍNEAS REGULARES DE NAVARRA, S.L.	NAV-003	PAMPLONA/IRUÑA-TUDELA-ZARAGOZA, ZONA RIBERA BAJA	1 de marzo de 2023	28 de marzo de 2029	6 años
VITORIA	LA BURUNDESA, S.A.U.	NAV-004	PAMPLONA/IRUÑA - ALTSASU/ALSAU-VITORIA/GASTEIZ, ZONA ALTSASU/ALSAU	4 de mayo de 2023	3 de mayo de 2028	5 años

Lurreko Garraioak antolatzeke Legeak bi urteko luzapenak aurreikusten ditu.

3. Zer epe darabil gogoan Departamentuak berri beharreko emakidak formalizatzeke?

2025ean egitea aurreikusten da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00415. Galdera, etxerik gabeko familien arazoa konpontzeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak etxerik gabeko familien arazoa konpontzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitartu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00415):

- Eskubide Sozialetako Departamentuak, oraingoan bai, adingabeak dituzten hiru familiaren eta emakume baten kasuaren berri izan duelako esperantzan –kalean lo egiten dute–, eta Iruñeko Udalak egindako adierazpenak entzun ondoren –"agortu egin dira etxerik gabeko familientzako plazak" esan du–, zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguakon-tseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Gizarte bazterketako arriskuan nahiz egoeran daudenen berehalako arreta eta premiazko harrera toki erakundearen ardura dira, Toki Araubidearen Oinarri buruzko Legaren 26. artikulua araberan.

Departamentuak adingabeen arreta hartu beharko luke bere gain adingabeen babesgabetasun arriskua nahiz egoera detektatuz eta jakinaraziz gero, eta ez zen jakinarazpenik egon.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguakon-tseilariak Iruñeko Udalarekin batera lan egiten ari da egoera horiei heltze aldera eta, ildo horretatik, dauden baliabide arruntetarako finantzaketa areagotu da, hala nola aterpetxeetarako eta hotz boladako kanpainetarako. Horrez gain, beste baliabide batzuk ere finantzatzen ari dira, hala nola Etxe Bat-Un Hogar Programa (Housing Led).

Aurrez 11-24/PES-00324 galderan erantzun zenez, Nafarroako Gobernuak Udalarekin batera ari da lanean zenbait tresna abian jartzeko eta finantzatzeko; horiei esker, plazak ugartzeaz gain, Udalak jada dauzkanen estaldura hobetuko da.

Halatan, "ETXE BAT - UN HOGAR" Housing Led-eko programa pilotu bat garatzeko hitzarmen bat sinatu dute Departamentu honek eta Iruñeko Udalak. Housing Led metodologian oinarritutako programa bat da, helburu duena etxegabetasunaren arazoari erantzutea Iruñean, etxebizitza hartuta esku-hartzearen ardatz, hezkuntza jarraipena eginda eta akonpainamendu sozialeko metodologia aplikatuta.

Hitzarmen horren esparruan, etxerik gabeko 30 pertsona eta etxegabetasun-egoeran dauden eta adingabeak dituzten bost familia artatuko dira. Hitzarmen horren bidez, esku-hartze sozialeko profesionalak lagun-egite trinkoa eskainiko diete larrialdietarako udal-etxebizitzetan jada dauden hogeita hamar familia-unitateri, gizarteratzea etxebizitzaren bidez lantzeko, eta Iruñeko Udaleko gizarte zerbitzuek erabakitzen dute zeinek eskuratzen duen zerbitzu hori.

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguakon-tseilariak adingabeen arreta hartu beharko luke bere gain adingabeen babesgabetasun arriskua nahiz egoera detektatuz eta jakinaraziz gero, eta aipatutako kasuetan ez zen jakinarazpenik egon.

Ildo horretatik, adierazi behar da NBEk jarrera argia agertu duela pobrezia ekonomikoko arrazoiengatik familiei adingabeen tutoretza kentzearen aurka. Nola Haurraren Eskubidearen Batzordeak hala Eskubide Ekonomiko, Sozialen eta Kulturalen Batzordeak errepikatu dute pobrezia ez dela haurrak familietatik bereizteko arrazoi izan behar. Erakunde horiek adierazten dutenez, pobrezia, bere horretan, ez da zabarkeriako edo abandonuko egoera bat, Estatuak adingabeak eta gurasoak bereizteko esku hartzea justifikatzen duenik.

Familia bereiztea azken baliabidea izan behar da, eta adingabea familian egoteak haren ongizaterako edo segurtasunerako arriskua dakarrelako frogarik badago soilik. Diru-sarreraren gabezia familia bereiztea eragiten duen baldintza gisa penalizatu dadila saihesteko, Haurraren Eskubideei

buruzko Konbentzioak –herrialde gehienek berretsitakoak– 9. artikuluan ezartzen du haurrak ez direla gurasoengandik haien borondatearen kontra bereizi behar, adingabearen interes gorenerako banatzea behar-beharrezkoa den kasuetan izan ezik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-24/PES-00416. Galdera, komunikazio enpresa batek antolaturiko ekitaldi/ekintza bat babesteko irizpideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak komunikazio enpresa batek antolaturiko ekitaldi/ekintza bat babesteko irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 11ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-416) –Nafarroako Parlamentuan 202405764 zenbakiarekin erregistratu da, 2024ko urriaren 3an–, jakiteko zer irizpideri jarraitzen zaien komunikazio-enpresa batek antolatutako ekitaldi/ekintza bat babesteko. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa, bat etorri Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) emandako informazioarekin:

Azken bi urteotan, sozietate publikoek ez dute komunikazio-enpresa batek antolatutako ekimen nahiz ekintzarik babestu, honako hauek izan ezik:

1. NASUVINSA, Hiria Foroan (Diario de Noticias–Zeroa Multimedia SA sozietateak antolatua)

2. INTIA, Reyno Gourmet markaren jabea, Nort Festival jaialdian (Diario de Navarra antolatua, besteak beste).

Ekitaldi horietako babesletzak izenpetzeko erabilitako irizpideei dagokienez, Nafarroako Gobernuak eta haren sektore publikoak ekitaldiak Nafarroako Gobernuaren edo enpresa publiko babeslearen markarako izaten ahal dituen publizitateko kontraprestazioen irizpidea baliatzen du.

Hau da, irizpide nagusia da publizitateko txertatzeen merkatuko balioa edo Nafarroako Gobernuaren markaren presentzia babestutako ekitaldian. Babestutako ekintzaren izaera, gaia edota jarduera baloratzeko bigarren milako beste irizpide bat da, argi geratu behar baita administrazioak banaketa garbia egiten duela babesletzaren xede izen behar duenaren eta dirulaguntza bat dakarrenaren artean.

Azken irizpide horrek –nagusiarekiko subsidarioa– Nafarroako Gobernuaren egiturazko ildoekin nahiz interes publikoarekin du zerikusia, hala nola klima-aldaketaren aurkako borrokarekin, Nafarroaren industrializazioaren sustapenarekin eta aniztasun linguistikoarekin.

Jakinazten da emandako informazioa isilpekoa dela. Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00417. Galdera, JPI Consultores SL kontsultorak Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren adituen lehenbiziko bileran parte hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak JPI Consultores SL kontsultorak Klima Aldaketaren Nafarroako Herritarren Batzarraren adituen lehenbiziko bileran parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-24/PES-00417 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, JPI Consultores SL enpresa aholku-emailearen parte hartzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zer eginkizun izanen du enpresa aholku-emaile horrek?

Klima Aldaketaren Nafarroako Herritar Batzarra arautzen duen Landa Garapeneko eta Ingurume-

neko kontseilariaren maiatzaren 7ko 142E/2024 Foru Aginduaren 41.b) artikuluan jasotakoak.

2. Nola esleitu da horren kontratazioa?

Kontratazioa egiteko deialdia egin zitzaizen zeregin hori egiteko gaitzat jotzen ziren bi enpresari. Biek aurkeztu zuten eskaintza ekonomikoa eta JPIk, gainera, eskaintza ekonomikoa eta teknikoa aurkeztu zituen. Bien zenbatekoa eta JPIren eskaintza teknikoa baloratu ondoren, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak erabaki zuen hori egokia zela zereginak eskatzen zituen eskakizun tekniko-etarako, eta, horrez gain, merkeagoa zen Kaizen Eureka enpresak egindakoaren aldean; beraz, hori aukeratu zen.

Hori guztia bat etorritz Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan ezarritakoarekin.

3. Zein da kontratazio horren zenbatekoa?

14.850 euro.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00418. Galdera, txostenak bat ez etortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak txostenak bat ez etortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00418 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "Oinarrizko osasun-laguntzak herritarrentzat duen irisgarritasunari buruz (2018-2023) Nafarroako Kontuen Ganberak egindako txostenean ematen diren datuak eta Osasun Departamentuak "Agintetaula"n emandako datu ofizialak ez datoz bat herritarren erreklamazioei dagokienez. Zergatik?". Hona hemen Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Bi arrazoi daude Kontuen Ganberak txostenean emandako datuekin desberdintasunak egoteko. Alde batetik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Kontuen Ganberari emandako informazioa "Oinarrizko Osasun Laguntzan jarritako eta SISNA-SAPen 2018-2023 aldian erregistratutako erreklamazioak" izan ziren. Hortaz, erreklamazioak baino ez genituen eman. Aginte Taulan argitaratzen ditugun gaien kontabilitatea azpimoten arabera sailkatzen da, gaiaren asmoaren eta funtsaren arabera. Kasu honetan, erreklamazioak "Hobetu beharreko alorrak" apartatuan sartzen dira, eta horren barruan zenbait kategoria daude, erreklamazioak barne.

Adierazi behar dugu, halaber, O-NOZek Kontuen Ganberari emandako datuak datu globalak zirela, eta Kontuen Ganberak ebaluatu ziren erreklamazioetan oinarritu zuen analisia; hau da, Oinarrizko Osasun Laguntzako irisgarritasunari lotutakoetan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00419. Galdera, ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkarte-rako aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkarerako aurrekontu-aurreikuspenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00419), ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkartearen aurrekontu aurreikuspenari buruz. Hona hemen galdera bera eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1.- Nafarroako Gobernuak zer aurrekontu-aurreikuspen darabil 2025erako ANIC-Kalamua ikertzeko Nafarroako Elkartearentzat?

Nafarroako Gobernuaren 2025erako aurrekontuetan ez dago partida espezifikorik ANIC elkartearentzako, eta 2024ko hitzarmena likidatzea baino ez da aurreikusten.

2.- Zer helburu ezartzen du 2025erako?

2024ko hitzarmen horrek zenbait jarduketa hartzen ditu barnean, eta horien ondorioak ateratzeko epea 2025eko irailaren 30era arte luzatuko da. Espero da ordurako proiektuak eginda egonen direla, bai eta amaierako ondorioen memoriak ere.

3.- Gobernuak ba al du aurrekontu- eta helburu-zenbatespenik heldu diren urteei begira?

Gobernuak ez du aurrekontu aurreikuspenik. Elkartearen beraren bazkideek etorkizunean sustatzen ahal dituzten ikerketa proiektuen arabera izanen da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00420. Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneko gardentasunaren atalari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webguneko gardentasunaren atalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-420) –2024ko urriaren 10ean erregistratua Nafarroako Parlamentuan 202405886 zenbakiarekin– Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren (NEKP) webgunean Bidean eta Nafarbide enpresa

publikoei buruz jasotzen den gardentasunari buruzkoa. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

•Bidean sozietate publikoak jada badu gardentasun-atal bat NEKPren webgunean. Esteka honen bidez sartzen ahal zara: <https://www.sociedadespublicasdenavarra.es/eu/cpen-gardentasuna>

•Nafarbide sozietate publikoak oraindik ez du gardentasun-atalik NEKPren webgunean, une honetan ez baitu webgune propiorik. Webgunea lantzen ari dira eta erabilgarri egonen da 2025eko lehen hiruhilekorako.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

